

## Gaia garatu: Telefono mugikorren arrisku eta abantailak



### EGOERA

Telefono mugikorrak gaur egun gauza askotarako erabiltzen ditugu, eta bizimodua asko errazten digute, baina kontuz erabiltzen ez baditugu, hainbat arazo sor ditzakete: gure informazio pertsonala lapurtu, menpekotasuna sortu eta abar. Hala ere, egungo sakelako telefonoek abantaila asko dituzte.

### EGITEKOA

Azaldu garai batean, zer motatako telefonoak erabiltzen genituen eta zer alde dauden egungo telefono mugikorrekin. Azaldu zertarako erabiltzen ditugun mugikorrak gaur egun eta zer arrisku dauden erabilera okerra eginez gero. Azkenik, eman zure iritzia sakelako telefonoen erabileraren inguruan. Zuk zertarako erabiltzen duzu mugikorra? Eta zer abantaila ikusten dizkiozu? Bertan gordetzen ditugun datuen lapurretak eta iruzurrak saihesteko zer neurri har daitezke?

Gaia prestatu ondoren, 2 minutu dituzu honetaz hitz egiteko.

## BAT-BATEKO ELKARRIZKETA

### Zein dira egungo mugikorretako arrisku eta abantailak?

Gaur egun, mugikorrek gauza askotarako erabiltzen ditugu: informazioa aurkitu edo partekatzeko, bankuko tramiteak egiteko, era guztietako informazioa gordetzeko... Ondorioz, arrisku ugari dugu norbaitek gure informazioa lapurtu edo iruzurra jasateko. Baina, arriskuez gain, egungo sakelakoek abantaila asko dituzte. Hemen daude zenbait arrisku eta abantaila



Gehiegi erabiliz gero, komunikatzea zailtzen du.



Gure datuak eta pribatutasuna arriskuan egon daitezke.



Modu erraz eta azkarrean era guztietako informazioa lor dezakezu.



Larrialdi-egoeran oso erabilgarria izan daiteke.

### GALDERA OSAGARRIAK

- Zer motatako informazioa gordetzen duzu zure mugikorrean?
- Eskuko telefonoa zertarako erabiltzen duzu?
- Zer neurri har daitezke, zure ustez, mugikorren menpe ez egoteko?
- Ze abantaila eta aukera eskaintzen dituzte egungo mugikorrek?
- Uste duzu nerabeak goizegi hasten direla erabiltzen? Gutxieneko zer adin beharko lukete?

## HIZTEGI LAGUNGARRIA

### ARRISKUAK SAIHESTU.-

- *Nola saihestu daitezke arriskuak? Bada, adibidez, datuen lapurreta saihesteko, ez zaitez konektatu wifi sare publikoetara.*

### ERABILERRAZA IZAN.-

- *Edonork erabil dezake eskukoa. Oso erabilerraza da. Izan ere, hori da bere ezaugarri nagusietako bat.*

### EROSOA IZAN.-

- *Erosoa da benetan eskukoa: noiznahi eta nonahi erabil dezakezu.*

### MENPEKOTASUNA SORTU.-

- *Eskukoaren menpe bizi gara. Eta noski menpekotasuna sortzen du.*

### NEURRIZ ERABILTZEN IKASI.-

- *Eskukoa benetan erabilgarria da baina neurririk gabe erabiliz gero kaltegarria da. Horregatik neurriz erabiltzen ikasi egin behar da.*

### NORBAITEKIN ZERBAIT PARTEKATU.-

- *Ia egunero argazkiak nire lagunekin sare sozialen bidez partekatzen ditut.*

### SEGURTASUNA EMAN.-

- *Edozein estutasunen aurrean mugikorra eskura izateak segurtasuna ematen du.*

## IDEIA OSAGARRIAK

- *Eskuko telefonoak ezinbesteko tresna bihurtu dira, aisialdirako eta baita lanerako lagungarri modura ere.*

- *Kontuz ibili behar dugu mugikorretara bidaltzen diguten publizitate eta deiekin, batzuetan iruzurra izan daiteke.*

- *Eskuko telefonoak gero eta sofistikuagoak dira, eta berehala zaharkitzen dira.*

- *Gaur egungo eskuko telefonoak ez dira deitzeko bakarrik erabiltzen: sarean nabigatzeko, informazioa partekatzeko, argazkiak ateratzeko... erabiltzen ditugu.*

Gai honen inguruan IKASBIL atarian aurkituko dituzun beste material batzuk:

**22270326** [Kontuz telefono mugikorrean gordetako informazioarekin.](#)

2168614 [Biziko al zinateke telebista edo mugikorrik gabe?](#)

**1402057** [Ikasgelan telefono mugikorrak lanerako tresna](#)

2127636 [Whatsapp-ari begira bizi gara](#)



1889182 [Smartphoneak aurretik eraman dituenak](#)

1213272 [Smartphone bat hamahiru urteko semeari](#)

**Bestelako erreferentziak:**

Telefono mugikorrek, adin txikikoen jostailu berriak

<https://zuzeu.eus/gaztea/telefono-mugikorrek-adin-txikikoen-jostailu-berriak/>

Telefono mugikorrek eta seme-alabak; erabilera mugak jarri eta egoki erabiltzeko irizpideak eman

<https://goiena.eus/debagoiena/1430817585581-telefono-mugikorrek-eta-seme-alabak-erabilera-mugak-jarri-eta-egoki-erabiltzeko-irizpideak-eman>